

MARIA GAURKO KRISTAU BIZITZAN

0. Gaur kristau teologia osoak dauka bere asikerara biurtu bearra. Asikera ez da istorikoa edo aldizkoa (au be izan daiteken arren), zentzuzkoa baiño. Tradiziño osotik artutako kristau fede ikuspegi zabala eta onen adar guztiak, nondik sortzen dira, zein da iturria, azken baten zer esan gura dabe? Esentziara, gunera, labur-bildu bear au ez jako zor metodologia ariketari, edo eskola kasketaldi bati. Gaurko itaunak dira gure arazoa, geureak diralalo, eta orrela guretzat benetako itaunak diralako. Galdera orreek bultzatzen gaitue, argi billa. Aipaturiko "esentzia" orretan aurkitu bear deutsegu, izatekotan, gaurko existentziak egiten deuskuzan galderei erantzuna (geu garan itaunaren erantzuna). Orregaitik, esentzia au ez da beste barik asikera istorikoan aurkitzen, au aurrez aurre emonda dagoan eran, asikera orretako testoak dagozan moduan artu eta geroko luzapenak edo zaabalpenak kentzea naikoa izango balitz lez. Esentzia ori bietan billatu bear, asikerako kristau bizipen ezau-garrietan eta geroko adierazpideetan. Bietan, adierazpide konkretoen zentzua da billatu bearrekoa.

1. Alderdi guztietatik begituta, argi dago Andra Mariaren lekua kristau fedean eta bizitzan Jesusen ama izatetik sortu dala, eta ortan datzala, leenengotatik eta istorian zear egitez ulertu eta bizi izan dan lez. Au oiñarritzen daben testoak, oneek izan daitekez: Mateo 1-2 (Maria, Jesusen ama), Lukas 1 (iragarpena)

eta 2 (jaiotza), Joan 19 (Jesusek, testamentu lez, Maria damotso amatzat maite dauan ikasleari), Ap Eg 1 ("Jesusen amagaz" bilduta dagoan Jesusen taldeak, Elizak, Espiritu Santua artzen dau). Alkartasun Barrian, au da, asikerako kristau fede esperientzian, ama izate ori ez da sentimentala eta biologikoa utsik. Ez dago bere garrantzia eta teologi zentzua izate materialean, ez da giza bonrondate eta afektibitate arremen normaletara mugatzen. Jakiña berezko giza errealtate au teologi zentzua-ren barruan artzen dana. Mariaren bibliako ama izatea ez da gertatzen gizazko amatasunetik at. Kristoren giza izateak berezkotasun andienaz artzen dau bere giza seme izate ori. Mariaren amatasun teologikoa gizazko ama izatean sustraitzen da. Baiña ez da or gelditzen. Edo orren barruan jazoten dana beste erralitate bat da. Puntu onetan gertatu izan da kristau fedearen istorian zear desbideratzearen arriskua: Mariaren amatasuna bere izate biologiko eta gizazko artuemon naturalean beste barik kokatzean, ortik sentimentukeria guztiak justifikatuz. Baiña au zapuztu dabenak, beste aldetik, ez dira gauza izan gizatasuna osorik artu eta fedeko amatasunean ulertzeko.

2. Ama izate au graziazkoa da. Leenengo ta bein, graziazko izateak Jaungoikoak onartua dala esan nai dau: poztu zaitez, "graziaz bete ori", Jaungoikoak doai, esker, egin deutsu ta. Eder izan zaiakoz, eta edertu egin zaitu eta aukeratu. Mesiasen ama izateko, Goi-goikoaren Semearen ama izateko. Grazia au eta aukeratze au ez da pribilegio indibiduala, Mesiasen ama izateaz da ta. Erri guztiaren zoria da or gogoan. Baiña, batera, aukeratua izate au ez da kanpokoa edo objetiboa, zelanbait esateko. Mariaren izatea bera ikutuko ez baleu lez. Ain zuzen ere, kristau esperientzia eta leenengo jakitea ispillatzen daben Alkartasun Barriko idazkiak bestera diñoe, Iragarpen narrazio-tik asi eta aurrera. Barru izate orren agerpen bat da "ona emen Jaunaren mirabca" (zerbitzaria) erantzuna (Lk 1,38). Zerbitzari izatea, baiña, Mesiasen izatea da, Jaungoikoaren eta Beronen Erreñuarren zerbitzaria danez. Beraz, Mariak jarrera orretan Mesiasen izatean eta destinoan artzen dau guztiz parte.

“Zorionekoa, sinistu dozulako” (1,45): emen sineste au zerbitzari izatearen parekoa da, barriro ere. Errealidade bardiñera zuzentzen dabe ebangelioko beste berbok ere: “Nire zeruko Aitaren borondatea betetzen dauana, ori da nire anaia eta arreba eta ama” (Mk 3,35). Eta beste onek: “Zorionekoak, obeto, Berbea entzun eta beteten dabenak” (Lk 11,28). Bietan azpimarratzen da amatasun eta senitarte barria, senitarte naturalaren kontrastean. Jakiña danez, ez dabe olako esaldiak berezko errealidadearen baliorik ukatzen: beste errealidade barri eta goragoko baten izatea baieztu nai dabe. Esaldi oneek zentzu piadosoan erabilli izan dira geiago, “mirabea” (zerbitzaria) oiñarrizko berbatzat artuta. Ez oster, teologi zentzu sendoan, eta Mariaren izate teologikoa, eta beraz, kristau fedean dauan lekua ikusteko. Maria, leenengo ta bein, “entzuten” eta “beteten” dauana da. Eta orregaitik da benetan Mesiasen graziazko ama. “Zerbitzaria” dalako da, zentzu osoan, Kristoren ama.

3. Ama eta zerbitzari konkretoa. Mariaren izate teologikoa ezin daiteke azaldu ebenjelioan agertzen dan irudi konkretotik kanpo. Or susmatzen da kristau fedearen iturburu garbi eta indartsua. Mariaren izate teologikoaren leenengo zertzeladak dira, eta bere izate konkretoa. Ez gaitu au esatera biblismoak erakarten, edo reduzionismoak. Kristau fedearen zentzua da gure ardurea, gaurko galderen aurrean. Orain aipatu ditudan testoez gain, urrengo oneek ekarriko ditut, Mariaren irudia teologikoa eratzen dabenak. “Aska baten etzun eban, ostatuan ez eben lekuri aurkitu eta” (Lk 2,7): Txiroei barri ona dakartsen Mesias apalaren ama. “Eta zu ezpateak zulatuko zaitu” (Lk 2,35): Mesiasegaz azkeneraino bat egitea. “Ez zenkien nik neure Aitaren etxean egon bear dodala ala? Eurak ez eben ulertu esan eutsena” (Lk 2,49): Mesiasen inguruan gertatzen dan misterioa, Mariaren fede bidea. “Zer nai dozu, emakume? Ez da eldu nire ordua” (Jn 2,4). Distantzi psikologiko eta teologikoa. “Emakume, orra or zure semea” (Jn 19, 26): Jesusek maite dituanak Maria dabe ama; Jesusek bat egiten ditu orretan ere beragaz. Aurrerago ekarritako testoa aipatu bear da barriro,

Pentekostes ezena teologikotik: "Jesusen amagaz" (Ap Eg 1, 14). Gizaldietan zear asmatuiko Mariaren "gloriak" (altaretako irudietan, eta geiago itzaldi eta idazkietan) ezin daitekez konparatu ebangelioko esaldi labur oneetan zirriborrotzen dan irudi teologikoagaz. Ez dago ezer andiagorik, misteriotsuagorik, maitagarriagorik. Esaldi orreetan gizatasuna, gizakiaren xalotasun esentziala agertzen da, eta xalotasun orretan Jesus Mesiagaz identifikatzea. Ama izatea bera ere giza xalotasunaren parte da. Eta Mesiassegaz bat egitea ama danetz egiten dau, identifikatze ori gizatasun osoan gertatzen da eta. Baiña, batera, au be gogoratu bear da: Mesiasen destinoak eta izateak beteten dau dana. Egia onek ez dau ezer kentzen edo gitxiagotzen; bete egiten dau, eta giza izatearen amaibako balorea agertazo. Kristau fedearen istorian, geroago autortu eta ospatu diran Mariaren zerura jasokundea eta sorkunde garbia, azken baten "graziaz bete" orren eta Mesiassegaz bat egite orren alderdiak, zabalpenak, garapenak dira.

4. Ebangelioko Mariaren irudi illezkor au emakumearen izakera eta birtuteakaz lotzera jo izan da, berezko danetz. Baiña geiago bearbada birtute pasibo eta negatiboakaz deritzen alderdiakaz, gaur oartzen dan lez. Ez da ori ebangelioaren as-mua. Emen ez dago izan ere birtute espezializaturik. Jakiña, Mariak, persona bakoitzak lez, Mesiasen Erreiñua emakume eta ama danetz artzen dauana. Baiña ori, garrantzitsua izanda ere, bigarren maillakoa da: leenengoa, persona izatea da. Ebangelioko Mariaren jarrerak ebangelio-jarrerak dira, unibersalak. Maria ez da, leenengo ta bein, emakumeen eta amen eredua, danena baiño. Kristoren jarreraren eta izatearen ildoan ulertu bearrekkoa da Mariaren izatea. Kristo ere danen eredua dan bezala. Kristogan agiri dira, leenengo, apaltasuna eta eroa-pena, eta Aitaren berbea entzun eta onartzea. Baiña izate jarre-ra ori ez da Aregan negatibo eta pasiboa. Erantzukizuna, originalitatea, dinamismoa, aurpegi emotea erakusten ditu nonnai eta beti. Jaungoikoaganako jarrerak unibersalak dira, eta jarre-ra orreek ez ditue banatzen berez personeren psikologiak.

Mariaren jarrerak Erreiñuko jarrerak dira. Jarrera oiñarriko au Magnifikat goratzarrean agiri da. Goratzarre ori Jaunaren goralpena da Mesiasen bidez egiten dauanagaitik. Or erakusten da “mirabearen apaltasuna”, batera erriaren apaltasuna dana, eta Jaunaren errukia erakarten dauana. Jaunaren errukia ez da sentimentala, ez da ulertzen era barnekoikeriazko eta piadosoan. Dinamikoa eta istorikoa da. Goratzarreak gainbera jasoten dala aldarrikatzen dau: Mesiasen bidez aaltsuak, beteak, buru arroak suntsitu eta utsik bota ditu, apalak eta gosc ziranak ondasunez bete. Erreiñuko salbamen mobimentua dago emen, arek eskatzen eta egiten dauan mundu barriaren sorrera. Maria agiri da (Mesiasegaz bat eginda dagoalako) Erreiñu orren abots lez.

5. Orregaitik, Maria Eleizearen irudia da, erri barriaren jarrerak dituaneez. Baiña, berez, Eleizearen irudi izate ori naiko era abstrakto eta espirtualistan ulertu daiteke. Elizaren irudi estatiko eta espirtualiatat Mariaren antzeko irudian billatuko leuke bere baieztapena. Ez litzake sortuko or harrikuntzarik. Irudi biak teologia edo erlijio irudi hardiñaren barruan egongo litzakez. Baiña Maria ez da Elizaren ispillu geldia. Elizaren irudi izateak norantza doan Eliza, Jainkoaren erria, esan nai dau. Ebangeliotik artutako jarrerak eta egikerak baiño ez dira azkenean irudi eraginkor ori eratzen dabenak. Maria nor eta zelakoa dan, aipaturiko jarreratan, bizitza eta fedeko bere zertzaladatan agerten jaku. Eta, beraz, Eleizea ere “zerbitzaria” da, al-dian-al-dian “entzun” egiten dauana, “magnifikat” aldarrikatzen dauana, Mesiasen mundu barriaren sortzea bultzatzen dauana. Au onartuz, Mariaren barruko bizitza, Jainkoagazko artuemona, bere emote eta maitasun gaitasun osoa autortzen ditugu batera. Jainko errukitsuaren esperientzia, apaltasunaren, illunaren eta eziñaren erdianbizi izan dau xalotasunik andienean. Kristoren berbizkundean bat egiñik, garatu baiño ez dira egin bere bizitzako jarrerak, eta guztiz loratu Jainko errukiaren esperientzia.

6. Gizaldietan Mariari buruz azi eta anditu dan oneraspenak eta zelanbaiteko teologiak Jaungoikoaren irudia zuzendu eta

orekatu dabela esan da. Jaungoiko gizonezkoa, gogorra, legearen egillea, ordena eta legea aplikatzen dauana. Eta, ondorioz, epaillea, epaille objetiboa, eta kondenatzaillea. Mariak emakumearen birtuteak, amaren samurra eta errukia sartzen ditu jainkozko irudi orretan. Maria errukizko bitarteko Kristoren aurrean, eta Jainko Aitaren aurrean. Istorikoki egitez orekatze au jazo izan dana ezin daiteke ukatu. Zenbat eta illunago eta gogorrago Jaungoikoaren irudia, ainbat urrago eta andiago Mariaren onberatasuna. Baiña onek zerbait ez dagoala ondo adierazten dau; teologi eta deboziño bide orretan desbideratze punturen bat izan dala. Argi dago desbideratze orren arrazoia Jaungoikoaren irudi okerrean datzala. Au olan dala, berezkoa izan da eta naitanaiezkoa ere bai Mariagan aurkitu izan dan zuzenketa eta oreka bidea. Baiña sendabide au ez da benetan sendabide. Jaungoikoaren irudia egokia ez bada ez dago albozko zuzenketara eta oreka biderik: oker geratzen da betiko irudi ori. Irudi oni oratu bear jako, aurrez-aurre. Esate baterako, Jaungoikoa gizonezkoa izan bada (Aita, utsik), trazendentzia berrikusi bear da. Geiago dana, gizonezko irudi ori gogorra eta bildurgarri izan bada, aurpegi ori da aldatu bearrekoa. Ez dauka teologiak eginkizun garrantzitsuagorik. Kristau fedearen erdigune eta muiña dogu emen, argi dagoanez. Eginkizun au ez da lortzen Jainkoaz itz egokiago hatzuk esanda. Irudi ori fede eta teologi a osoaren atzean dago beti. Berau eratzen teologia pentsakera osoak artzen dau parte, moralak, otoitzak, liturgiak, era guztietatik aipamenak. Beste alde batetik, badauka egia alderdi bat Mariari buruzko ulerbide arek: Jaungoiko trazendentea istorian islatzen da. Eta duda barik, Mariagan (eta amatasunean orokorki) giza erraiñu apartekoa lortzen dau islatze onek. Ulerbide onetan positiboki ulertzen da Mariaren bitartekotasuna, santu guztiena eta (beste mailla baten) istoriaren beraren bitartekotasuna. Jaungoiko trazendentearen onbeste amaibakoa ixuri egiten da sorkarietan eta gugana eltzen. Baiña egiazkoa dan bitartekotasun au onela bakarrik jazoten da: alderdi batetik Jaungoiko trazendentea ala mantentzen da-

la, eta bestetik sorkari guztiak sorkari mantendu eta Aren onbetearen artzailletzat ikusten diranean.

7. Gaur eguneko teologia gogoketak aurkitu dauan ideiarik sakonenetariko bat kristau fedeak askatzaillea eta sendatzaillea izan bear dauala da. Kristau fedeak asikeratik bere esentzia eta eginkizuna azaltzeko ain zuzen ere askatasun eta osasun ideiak artu zituan. Gizakiak, jakiñez zein jakin barik, billatzen dauan duintasun, bardintasun eta askatasunaren erantzuna. Askatasuna eta osasuna zentzurik osoenean ulertu nai ditut; esate baterako, ez da gogoan politika aspektoa bakarrik, nai ta au garrantzitsua eta ezinbestekoa izan. Menpekotasun era asko dagoz. Euren artean, emakumearen menpekotasun apartekoa ere bai. Askapen teologiak, bere forma diferenteetan garrantzi berezia emon deutso arrasoiz Mariaren irudiari. Txiro beeratuen artekoa dalako. Emakumea dalako. Eta Mesias askatzailleagaz bat eginik, Jaungoiko askatzaillearen profeta biurtu zalako (Magnificat). Ebangelio askatzaillearen abotsa eta irudi izan zalako. Alan ere, ertzeko eta geiegizko era batzuetan badago arriskua manipulazioa erabiltzeko, errebendikazio obsesioak artuta. Mariaren irudi originala, asikerako irudia, unibersala da berez, leenengo ta bein. Unibersaltasun au emakume eta ama danez gauzatzen dau istorian zear. Unibersaltasun orretan errebendikazio guztiak dauke lekua, baiña gizartearen eta personearen bearrianak ez dira agortzen alderdi publiko batzuetan edo gizarteko artuemon batzuetan. Istoria barruko nekeen artean badagoz betiko izan diran bearrianak eta zapaldu guztiak besteak baizen sakon eurenak dituenak. Mariaren barne bizitza, fede illunean, itxaropen ustetsuan, maitasun berezko xaloan mamitu zana, orain Kristo berbiztuagan geiagotu egin da, garatu. Oso bidezko diran errebendikazioak, benetakoak badira, Mariaren barne bizitza orra eroango dabe (Kristogaz eta Aita Jaungoikoagaz jazo ten dan bezalaxe).

8. Erriaren deboziñoak, guk danok, irudi konkretoak eta sinboloak bear ditugu, giza bizitzak edozein arlotan gaur egu-

nean ere bear dituanetz. Ikurrak beti dira bearreko, erlejiñoan ere bai, aragi, lur eta istoria garanez. Aipatu ditugun Mariari buruzko teologiak gidatu eta zuzendu bearke leuker adierazpideon esanaia. Esan ditugun sinbolo eta irudiak, altaretako irudiak, kantuak, otoitzak eratzen dabez, esate baterako, eta beste era askotako irudiak, gizaldietan zear agertu izan diranak. Irudion esanaia naitanaiez eraldatu eta jatortu bear da gaurko kristau fedearen ulermenaz. Leenengo ta bein, Mariaren omenez erabilten eta gurtzen diran irudion balioa positiboki ulertu bear da: eraspenbide orreen zaleak Mariagaz aparteko artuemonak daukela (apartekotasuna ikurrak eurak gauzatzen dabe). Ez Kristo naiko ez balitz lez, edo Jainko ontasuna eta errukia naikoa ez balitz lez, guztiz bestera baiño: adierazpide orreek Kristoren ontasuna eta salbamena gogoratzen dabe, eta salbamen orregaz bat egiteko aukera eskeintzen. Alderantziz, adierazpide konkretu orreek (areetariko batzuk) ez darabillezanak ez dagoz orregaitik, berez eta beste barik, Jainko errukitik kanpo, ez dagoz Mariaren alkartasunetik urriño. Au esan gura dau areen balioa positiboki ulertzeak. Mariaganako deboziñoak, bere alderdi guztietan, Mariaren ebangelio zabaltasunean dauka esangurea. Eraspen indibidualista eta istoritik kanpokoa jarrerarik kontrakoena litzake. Maria Mesiasen, eta gizadi osoaren, destinoagaz guztiz eta betiko bat egindako ama dogunez. Kristau fedea bera ulertzen dan neurrian eta eran ulertuko da eta biziko Mariari buruzko teologia eta kristau eraspena. Eta alderantziz: Mariagana oneraspenak eta teologiak zelako kristau fedearen ulermena daukagun erakusten dau.

Luis Arostegi